



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko martxoaren 23a

41. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Pablo Sarasate Fundazioari eta Santa Cecilia Kontzertu Sozietateari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).
- Nafarroaren Bruselako Ordezkaritzari buruzko fiskalizazio txostena (2003-2014), Kontuen Ganberak egina (18. or.).
- Trabajos Catastrales SAren plantilla berregituratzeko baimena, Tracasa Instrumental SL sozietatean sartu behar diren langileen subrogazioaren bitartez. Foru Araubideko Batzordeak onetsia (27. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Pablo Sarasate Fundazioari eta Santa Cecilia Kontzertu Sozietateari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 18an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio txostena, Pablo Sarasate Fundazioari eta Santa Cecilia Kontzertu Sozietateari buruzkoa, ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Pablo Sarasate Fundazioari eta Santa Cecilia Kontzertu Sozietateari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

**I.** Sarrera (3. or.).

**II.** Santa Cecilia Kontzertu Sozietatea eta Pablo Sarasate Fundazioa (4. or.).

**II.1** Santa Cecilia Kontzertu Sozietatea (4. or.).

**II.2** Pablo Sarasate Fundazioa (4. or.).

**II.3.** Santa Cecilia Kontzertu Sozietatearen eta Pablo Sarasate Fundazioaren arteko harremanak (5. or.).

**II.4.** Santa Cecilia Kontzertu Sozietatearen eta Pablo Sarasate Fundazioaren datu ekonomiko nagusiak (6. or.).

**III.** Helburua, norainokoa eta mugak (9. or.).

**IV.** Ondorioak eta gomendio orokorrak (10. or.).

**V.** Egindako lanaren azterketa (11. or.).

a) Alderdi juridiko eta antolamendukoak (11. or.).

b) Pablo Sarasate Fundazioaren eta Santa Cecilia Kontzertu Sozietatearen artean gurutzatutako kontuen kontabilitate-zerikusiak (11. or.).

c) Santa Cecilia Kontzertu Sozietateak jasandako gastu-kontzeptuen azalpena (13. or.).

d) Fundazioaren eta Sozietatearen egoera ekonomikoa (15. or.).

**I.** eranskina. Santa Cecilia Kontzertu Sozietatearen balantzea, 2014-12-31n (17. or.).

**II.** eranskina. Pablo Sarasate Fundazioaren egoeraren balantzea (17. or.).

## I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, Nafarroako Gobernuak eskatuta, 2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Kontuen Ganberari eskatzea txosten bat egin dezan "Pablo Sarasate Fundazioaren eta Santa Cecilia Kontzertu Sozietatearen artean gurutzatutako kontuen kontabilitate-zerikusari" buruz, 2006-2014 aldian.

Eskariaren jatorria da azken urteetan sozietateak kobratutako ordainketen zenbatekoa ez dela guztiz sartu Fundazioaren kontuetan. Hori dela eta, Fundazioak bere auditoreari eskatu zion alderdi horri buruzko azterketa mugatuko txosten bat egin zezan. Txosten hori 2015eko irailean entregatu zen.

Lan hau Nafarroako Kontuen Ganberaren 2015erako fiskalizazio-programan sartu zen.

Lana 2015eko azaroan egin zuen auditoria-teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoekin, informatikoekin eta administratiboekin lankidetzan.

2009an, orduan ere Parlamentuak eskatuta, Pablo Sarasate Fundazioari buruzko txosten bat egin zen. Haren ondorio nagusia izan zen ez zela kongruentea funts bereki negatiboak zeuzkan fundazio bat egotea, nahiz eta haren jarduerari eutsi zekioken funtzionatzeko diru-laguntzak lortzen zituen bitartean.

Nafarroako Gobernuari gomendatzen zitzaion azter zezan ea komeni den ondare negatiboa duen fundazio pribatu batean parte hartzea, diru-laguntzaren bitartez "de facto" kontrolatua izan daitekeena eta, Gobernuaren parte-hartzearekin, "nolabaiteko izaera publikoa" hartzen duena.

Txostenak lau atal ditu, sarrera honetaz gainera. Bigarrenean, labur azaltzen dira Santa Cecilia Kontzertu Sozietatearen eta Pablo Sarasate Fundazioaren ezaugarri nagusiak; hirugarrenean, helburuak, norainokoa eta mugak aurkezten dira; laugarrenean, ondorio eta gomendio nagusiak jaso ditugu, eta bosgarrenean ondorio eta gomendio horiek zabaldu eta zehazten dira.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak eman nahi dizkiegu Pablo Sarasate Fundazioko langileei, Santa Cecilia Kontzertu Sozietatearen Batzarrari, UNICEFeko langileei eta Pablo Sarasate Fundazioaren auditoreari.

## II. SANTA CECILIA KONTZERTU SOZIETATEA ETA PABLO SARASATE FUNDAZIOA

Atal honetan, bi erakunde horien ezaugarri nagusiak aurkezten ditugu.

### II.1 SANTA CECILIA KONTZERTU SOZIETATEA

Irabazi asmorik gabeko sozietate hau 1879an eratu zen. Haren gobernamendua Biltzar Nagusiak dauka eta haren administrazioaz Zuzendaritza Batzarra arduratzen da. Kulturako kontseilaria batzar horren eskubide osoko kidea da.

Sozietate pribatu bat da, langilerik ez duena, eta Pablo Sarasate Fundazioko langileak arduratzen dira kudeaketa administratiboez.

Estatutuen arabera –haien azken aldaketa 1967koa da–, honako hauek dira Sozietatearen helburuak:

*“a) Musikaren arterako zaletasuna hedatu eta zabaltzea Nafarroan, kontzertuak eginez, eta ahaleginak egitea kontzertu horiek kalitate onenekoak eta ugari izan daitezen. Kontzertu horiek bazkideentzat eta publiko orokorrarentzat izanen dira. Baldin eta lehenengoan kopurua handitzearen ondorioz ohiko lokalak daukan tokia gainditzen bada, bigarren saio bat antolatuko da.*

*b) Nafarroako musika ezagutzera ematea, gaur egunekoa nahiz iraganekoa.*

*c) Nafarroako musikariak sustatzea, haiek kontratatuz Sozietatearen kontzertuetan artista gonbidatu gisa ari daitezen.*

*d) Nafarroako musika-jarduera Nafarroako Foru Komunitatearen mugetatik kanpo proiektatzea. Helburu horiek aurrera eramateko, Sozietateak orkestra-formazio bat edukiko du, Pablo Sarasate izenekoa. Haren dimentsioa orientabide artistikoaren eta diru-baliabideen araberkoa izanen da.*

Ez dago bazkideen erregistro gaurkoturik, eta jo daiteke bazkideak kontzertuetarako abonamenduak dituztenak direla; haien kopurua, Tuterako abonatuak barne, 1.700 ingurukoa da.

### II.2 PABLO SARASATE FUNDAZIOA

1997an, Santa Cecilia Kontzertu Sozietateak eta Nafarroako Gobernuak “Pablo Sarasate Fundazioa” eratu zuten, lehenengoak espezieetan egindako ekarpen batekin (musika-artxiboa eta musika-tresnak), 24.252.709 pezetatan (145.762 euro) baloratua, eta Nafarroako Gobernuaren 2.000.000 pezetako (12.000 euro) ekarpen batekin.

Horrenbestez, fundazio pribatu moduan eratu zen, nahiz eta haren funtzionamendua finantzaketa publikoaren mende dagoen.

Estatutuetan 2007an egindako azken aldaketaren ondoren, Patronatua honako hauek osatzen dute: Nafarroako Gobernuak izendaturiko hiru ordezkariak, Santa Cecilia Kontzertu Sozietateak hautaturiko beste hiru ordezkariak, musikaren arloan muntadun diren bi pertsonak (bata Santa Cecilia Kontzertu Sozietateak hautatua eta bestea Nafarroako Gobernuak) eta Iruñeko Udalak hautaturiko beste ordezkari batek.

Honako hauek dira Fundazioaren xedeak:

*“a) Nafarroako musikagile eta interpreteen sustapena, interes berezia jarrita musika-balio berrien jardueraren sustapenean.*

*b) Nafarroako musika-ondarearen inguruko ikerketa, kontserbazioa eta zabalkundea, erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan arituta.*

*c) Ikastetxeekiko lankidetzak, bereziki musikaren arlokoekin, bai eta beste entitate batzuekin, ere bere helburuak betetze aldera.*

*d) Kontzertuak, emanaldiak, hitzaldiak eta Nafarroako herritarren musika-kulturaren maila jasotzen laguntzen duten bestelako jarduerak sustatzea.*

*Helburu hauek betetzeko, Fundazioak Santa Cecilia Kontzertu Sozietatearen musika-jarduerak sustatuko ditu (sozietatea Pablo Sarasate Orkestraren titularra da), bai eta horrelako jarduerekin bat egin ahal duten musika-elkarte guztienak ere.*

Fundazioak, bere kabuz edo beste entitate edo erakunde batzuekiko lankidetzaren bidez, kontzertu-denboraldiak, opera, baleta, zartzueta, denboraldiz kanpoko kontzertuak, birak, trukeak eta bestelako jarduketak antolatu eta sustatu ahalko ditu, beste musika-talde batzuen esku-hartzearekin, urteko programazio baten esparruan.

Fundazioak honako langile hauek dauzka:

a) Administrazioa: 11 pertsona. Gerentea; kontrolatzailea (administrazioko arduraduna); bi administrari ofizial; zuzendari tekniko bat; artxiboaren arduraduna; partituren arduraduna; proiektu sozialen zuzendaritza; komunikazioa; kudeaketa-laguntzailea; garbiketa (lanaldi partzialean).

b) Musika. Zuzendari artistiko bat eta 51 musikari.

c) Proiektuak. Haurrentzako musika-hezkuntzaren proiekturako lanaldi partzialen diharduten 10 pertsona (ehuneko 37,5etik gorako lanaldiarekin) eta orkestra-akademiarako lanaldi partzialen diharduten 5 pertsona (ehuneko 37,5etik gorako lanaldiarekin).

Gainera, kontzertuetarako behar diren errefortzuko eta ordezkapenetarako musikariak edo concertinoak kontratatzen dira.

Fundazioaren kontuak profesional independente batek auditatzen ditu urtero. Auditoriak direla eta, nabarmendu behar dugu aldeko iritzia dutela, nahiz eta nabarmendu behar den 2013ra arte entitatearen funts berekiak negatiboak direla. 2014an konponbide bat eman nahi izan zitzaion egoera horri, txosteneko V.b ataleko 15. ondorioan aipatzen dugun eragiketaren bitartez.

Honela laburbil daiteke orkestraren jardura:

- Kontzertu-zikloak: 14 kontzertu, Iruñean bi egunez eskaintzen direnak, eta Tuteran egiten diren 5 kontzertu.
- Nafarroatik kanpoko birak eta emanaldiak: horien urteko kopurua zenbait inguruabarren arabera izaten da eta, horrenbestez, aldakorra da.
- Beste musika-entitate batzuekiko emanaldiak: Iruñeko Orfeoia eta Gayarre Operaren Lagunen Elkarte, besteak beste.
- Grabaketetan parte hartzea.
- Haurrentzako musika-hezkuntzako proiektuak eta orkestra-akademia.

### II.3. SANTA CECILIA KONTZERTU SOZIETATEAREN ETA PABLO SARASATE FUNDAZIOAREN ARTEKO HARREMANAK

Bi entitateen helburuen artean dagoen antzekotasuna nabarmendu nahi dugu. Estatutuen arabera, Kontzertu Sozietatea da Orkestraren titularra, zeren eta bertan esaten baita "orkestra-formazio bat edukiko duela", eta Zuzendaritza Batzarraren ahalmenen artean jasotzen baita "zuzendari artistikoa izendatu eta, kasua bada, kargutik kentzea". Fundazioaren estatutuetan, ordea, ez da aukera hori aipatzen.

Hala eta guztiz ere, praktikan, jada aipatu dugun bezala, musikariak Fundazioaren langileak dira.

Hasiera batean, 2001era arte, abonamenduen bidezko diru-sarrerak Kontzertu Sozietateak kontabilizatzen zituen; gero, 2006ra arte, Fundazioa da hori egiten duena; 2007tik aurrera, azkenik, berriz ere Santa Cecilia Kontzertu Sozietatea da abonamenduen eta sarrera-txartelen ko-brantzaren kontabilitate-erregistroaz arduratzen dena. Ekitaldiaren itxieran, Fundazioak Sozietatearen aurkako faktura bat egiten du, abonamenduen eta sarrera-txartelen saldo garbia dela-eta, eta horrekin diru-sarrera baliogabetzen du Sozietatearen kontabilitatean.

Hau da, Sozietateak abonamenduak kobratzen ditu, eta ekitaldiaren amaieran kopuru garbia Fundazioari eskualdatzen dio.

Abonamenduen kudeaketa Sozietatearen finantza-jardueraren zatirik handiena da.

Sozietateak langilerik ez duenez, kobrantzen kudeaketa Fundazioko administrariak egiten dute, eta horietatik dira Sozietatearen kontabilitatez arduratzen direnak.

Inongo akordio edo hitzarmenik ez dago Sozietatearen eta Fundazioaren arteko harremanak arautzen duenik, eta ezin izan dugu egiaztatu Sozietateko Batzarraren edo Fundazioko Patronatuaren akordioak existitzen diren.

Hartara, praktikan, baieztatu daiteke bi entitateen kudeaketa nahastu egiten dela, haien administrazioaz pertsona berak arduratzen direla eta antzeko helburuak dituztela. Lotutako eragiketak erregistratzeko, Sozietatearen eta Fundazioaren arteko kontabilitate-kontu bat erabiltzen da.

#### II.4. SANTA CECILIA KONTZERTU SOZIEATEAREN ETA PABLO SARASATE FUNDAZIOAREN DATU EKONOMIKO NAGUSIAK

Ondoren jaso dugu bi entitateen kontabilitateetik ondorioztatzen diren datu nagusiak. I. eta II. eranskinetan, 2014an izan dituzten balantzeak ageri dira. Santa Cecilia Kontzertu Sozietatearen kasuan, kontuak auditatu gabe daude. Hala eta guztiz ere, balantzearen doikuntza batzuk egiten ditugu, Pablo Sarasate Fundazioarentzako hasierako ekarpenetik heldutakoak.

##### a) Sozietatea.

Ez dugu haren auditoria egin. Txosten honetako V. ataleko b) letran aipatzen diren eragiketak kenduz gero, honako hauek izanen dira Sozietatearen gastuak eta diru-sarrerak:

Santa Cecilia Kontzertu Sozietatearen diru-sarrerak eta gastuak

	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	Guztira	Batez bestekoa
Diru-sarrera berekiak	3.090	4.011	6.386	6.078	4.958	2.981	3.020	7.957	9.025	47.506	5.278
Gastu berekiak	5.713	746	2.225	3.578	1.121	1.950	5.589	11.886	6.715	39.523	4.391

Ikus daitekeen bezala, ia ez du jarduera ekonomikorik. Haren aktibo nagusia Fundazioari entregatu zitzaion, haren sorrerarako zuzkidura gisa. Jada aipatu dugun bezala, inongo langilerik ez dago.

##### b) Fundazioa.

Fundazioaren kontabilitateetik honako datu hauek ondorioztatzen dira, kontuan izanda 2012an ekitaldiko aldia aldatu egin zela, kontzertuen zikloekin batera gerta zedin.

## Pablo Sarasate Fundazioaren diru-sarrerak eta gastuak

7

Diru-sarrerak	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	Guztira	%, guztizkoaren gainean
Salmentak	688.647	756.490	1.062.054	865.804	601.545	680.042	275.853	824.916	838.300	6.593.652	13
Babesleitzak	320.077	240.494	248.100	230.582	36.523	146.216	252.835	2.186.411	2.171.415	5.832.652	12
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza	3.965.946	4.461.874	4.860.392	4.825.000	4.170.000	4.200.000	3.500.000	1.650.000	2.551.696	34.184.909	68
Iruñeko Udalaren diru-laguntza	194.957	195.000	203.190	203.190	203.190	178.190		153.333	54.224	1.385.274	3
Kultura Ministerioaren diru-laguntza (Arte Eszenikoaren eta Musikaren Institutu Nazionala)					1.360.000	146.970				1.506.970	3
Diru-sarrera finantzarioak	15.497	445	77	6	23	13	11	74	124	16.269	0
Aurreko ekitaldietako diru-sarrerak	461.754	29.178	27.206	5.785	2.764				620	527.307	1
<b>Orokorra, guztira</b>	<b>5.646.879</b>	<b>5.683.481</b>	<b>6.401.019</b>	<b>6.130.367</b>	<b>6.374.045</b>	<b>5.351.431</b>	<b>4.028.699</b>	<b>4.814.733</b>	<b>5.616.380</b>	<b>50.047.034</b>	<b>100</b>

  

Gastuak	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	Guztira	Guztizkoaren gainean (%)
Zuzendariak, bakarlariak, ordezkioak	801.625	846.646	1.139.931	864.526	856.225	601.371	266.603	195.899	134.573	5.707.399	11
Kanpoko zerbitzuak	1.313.582	1.132.368	1.528.675	996.654	1.101.687	806.527	668.582	683.821	930.153	9.162.049	18
Tributuak	100	100	100		750	1.400	702	1.421	2.649	7.220	0
Langileria-gastuak	3.332.658	3.556.697	3.634.513	4.166.640	4.281.160	4.182.139	2.650.807	3.784.312	4.118.294	33.707.219	68
Bestelako kudeaketa-gastuak	40.466	25.077								65.543	0
Finantza-gastuak	17.370	28.717	21.515	35.894	48.749	44.631	44.655	108.700	18.526	368.755	1
Aktibo ez-korronteen galerak eta gastu bereziak	82.231	12.258	18.623	16.999	8.804	41.461	10.967	135	340.211	531.690	1
Amortizazioarako zuzkidura	40.803	50.838	46.668	46.666	36.908	31.504	23.303	28.352	22.976	328.018	1
Balio-andeatzearen ondoriozko galerak eta bestelako zuzk.	0								49.500	49.500	0
<b>Orokorra, guztira</b>	<b>5.628.834</b>	<b>5.652.702</b>	<b>6.390.023</b>	<b>6.127.378</b>	<b>6.334.283</b>	<b>5.709.032</b>	<b>3.665.618</b>	<b>4.802.640</b>	<b>5.616.882</b>	<b>49.927.393</b>	<b>100</b>

Taulako datuetatik ondorioztatzen denez, aldi horretan diru-sarrerak 6.4 eta 4,8 milioi bitarte-koak izan ziren. Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza izan zen kontusail nagusia (ehuneko 68). Kontuan hartu beharra dago 2013an eta 2014an diru-laguntza horrek nabarmen egin duela behera, eta aparteko babesletzen bidezko diru-sarrerekin konpentsatzen dela.

Salmenten bidezko diru-sarrerak (sarrera-txartelak, zikloen programaz kanpoko kontzertuak...) milioi baten eta 600.000 euroren artekoak dira.

Gastuetan, kopuru oso antzekoak aurkituko ditugu; langile-gastuak dira kontusailik aipagarriena. Halakotzat erregistratutakoen eta "zuzendariak, bakarlariak eta ordezkioak" atalean sartutakoen artean, gastuaren ehuneko 79 dira.

Jada aipatu dugun bezala, funts berekiak negatiboak ziren 2014ra arte.

c) Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak.

Nafarroako Gobernuak Fundazioari laguntzen egin duen ahalegina baloratzeko, hurrengo taulan erakusten ditugu Kultura Departamentuak kulturarako bideratutako diru-laguntzen eta, berariaz, Fundazioarentzat emandako diru-laguntzen datuak:

#### Kultur ekintzetarako diru-laguntzak

Kultura sustatzeko diru-laguntzak	2011	2012	2013	2014	2015*	Guztira
Vianako Printzea Saria	40.000	25.000	25.000	25.000	25.000	140.000
Batzuk	246.020	132.107	4.477	43.000	66.150	491.754
Museoak	1.914.379	1.504.798	1.429.248	1.181.904	1.054.550	7.084.879
Arte Zabalkunderako Atala		1.265.418	2.399.665	2.059.676	1.400.882	7.125.642
Arte Sorkuntzaren, Ekoizpenaren eta Zerbitzuen Atala	9.452.568	7.050.787	4.510.066	5.144.744	5.577.135	31.735.299
4 transferentzia arruntzen guztizkoa	11.652.967	9.978.110	8.368.456	8.454.324	8.123.717	46.577.575

\*2015eko kreditu-osagarria barne

Pablo Sarasate Fundazioarenak Arte Sorkuntzaren, Ekoizpenaren eta Zerbitzuen Atalekoen barruan daude

Fundazioarentzako diru-laguntzak	2011	2012	2013	2014	2015	Guztira
Pablo Sarasate Fundazioarekiko hitzarmena	4.200.000	3.500.000	1.650.000	2.551.696	3.956.100	15.857.796
PSFaren diru-laguntzaren % /Sormena, produkzioa eta zerbitzu art.	% 44	% 50	% 37	% 50	% 71	% 50
PSFaren diru-laguntzaren % / 4. kap. guztizkoa	% 36	% 35	% 20	% 30	% 49	% 34

Ikus daitekeen bezala, Fundazioarentzat diru-laguntzak 2011-2015 aldiaren arte-sormenerako, -produktiorako eta -zerbitzuetarako bideratutakoen erdia dira, eta kultur ekintzetarako bideratutakoen ehuneko 34. Nabarmendu beharra dago 2015ean portzentaje horiek ehuneko 71 eta ehuneko 49 direla, hurrenez hurren.



### III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

Txosten honen xedea da erantzuna ematea egindako eskariari, eta, zehazki, honako gai hauei:

- Egiaztatzea akordiorik ba ote dauden erakundeen aktetan honako hauei buruz: Bi entitateen arteko eginkizun-banaketa, orkestraren kudeaketa, kudeaketa finantzarioa eta abar.
- Egiaztatzea Kontzertu Sozietatearen eta Fundazioaren arteko harreman gurutzatuek sortutako funtsen zertarakoa.
- Funtsen erabilera justifikatzen duten euskarriak aztertzea.
- Sozietatea-Fundazioa saldoak alderatzea bi entitateen kontabilitateetan.
- Musika sustatzera bideratutako funts publikoen kudeaketa egokirako behar diren neurriak proposatzea.

Lan honek ez du bilatzen Nafarroako Gobernuak Fundazioari emandako diru-laguntzak aztertzea, ez eta haien justifikazioa ere.

Lan hau egiteko, funtsean, honako hauek erabili dira. 2015eko iraileko azterketa mugatuaren txostena, bi entitateen 2006-2014 urteetako kontabilitate-egunkariak, Fundazioaren 2014ko ekitaldiko auditoria eta bi entitateen 2006-2015 urteetako aktak.

Halaber, harremanetan jarri ginen Santa Cecilia Kontzertu Sozietatearen Zuzendaritza Batzarreko kideekin.

Berez muga bat ez bada ere, jasota utzi nahi dugu Sozietatearen eta Fundazioaren arteko harremanei buruzko erregulazio eskasak funtsezko eragina duela lanaren zenbait alderditan.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzardeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta kasuko ISSAI-ES arauak aplikatu dira; gainera, lanaren inguruabarrei eta helburuari dagozkien prozedura teknikoak ere erabili dira.

**IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIO OROKORRAK**

Antzeko xedeak dituzten eta jarduera nagusizat Nafarroako Orkestra Sinfonikoa-Pablo Sarasate Orkestra kudeatzea duten bi entitate dauzkagu: Santa Cecilia Kontzertu Sozietatea eta Pablo Sarasate Fundazioa. Bada, entitate horiek ez dituzte ez mugatu, ez arautu beren harreman eta jarduketa-arauak, eta horrek berarekin dakar praktikan elkarrekin nahastea eta elkarren egitekoak lausotuta agertzea.

Lan egiteko modu horrek bideratu du Sozietateak Fundazioari ez transferitzea abonamendu eta sarrera-txartelen bidezko diru-sarrera guztiak eta kobratu dituen faktura batzuk, nahiz eta Fundazioari zegozkion. Haien zenbatekoak 454.583 euro egiten du.

Transferitu gabeko funts horiekin honako ordainketa hauek egin ditu:

Dohaintzak, UNICEFi	129.148
Gerentzia eta kudeaketa	92.777
Askotariko gastuak*	49.409
Errentamenduak	17.873
Banku-gastuak	2.671
<i>Honaino, guztira</i>	<i>291.878</i>
Pablo Sarasate Fundazioarentzako diru-laguntza, musikari gazteen orkestra-akademia bat sustatzeko	400.000
<b>Guztira</b>	<b>691.878</b>

\* Ordainketa Fundazioaren kontu batetik egin zen, baina gastua Sozietateari egotzi zitzaion.

UNICEFi egindako dohaintzak direla eta, aipatu behar dugu eragiketa berezi bat dela, zeren eta alde batetik Fundazioak UNICEFi kobratzen baitio azken horren onurarako egiten duen kontzertuarengatik, eta, bestetik, Sozietateak antzeko zenbatekoa egiten duen dohaintza bat ematen baitio. 2014an jada ez da dohaintza hori egin.

“Gerentzia eta kudeaketa” atalaren ordainketei dagokienez, Sozietateko Zuzendaritza Batzarrak esan digu 2012ko apirilaren 23an *“ikus-onespena eman ziotela gerentearentzat, funts berekietatik, 95.624,20 euroko ordainketa egiteari. Gobernuak derrigortutako soldata-jaitsiera dela eta, gerenteak planteatu zuen ezin zuela beherapen hori onartu eta beste eskaintza bat bazuela, eta, horrenbestez, joan egin behar zuela. Fundazioa zein momentutan zegoen ikusita, Zuzendaritza Batzarrak onartu zuen bi urtetako soldata-aldea osatzea, gerentea izaten jarrai zezan”*.

Gure ustez jarduketa inkoherente bat da hori, Nafarroako Gobernuak erabakitakoaren aurka-koa.

Sozietateari diru-laguntza bat emateari dagokionez, azken horri ondare-oreka itzultze aldera, adierazi behar dugu halakorik ezin dela egin baldin eta Sozietateak, kasua den bezala, ez baditu diru-laguntza ordaintzeko behar diren baliabideak; nolana ere, hori da Fundazioaren egoerari konponbidea eman nahi izatea Sozietatea egoera oker horretantxe jarritz.

Horrenbestez, esan behar dugu ezen, gure iritziz, eredu hau desegokia dela Orkestra Sinfoniko baten kudeaketarako, kontuan izanda administrazioko langileak hartuta 70 pertsona inguru dituela eta 4,5 milioi euro inguruko aurrekontua duela.

Horrenbestez, gomendatzen dugu ordezkari publikoek definitu dezatela Foru Komunitateak eduki beharreko orkestra-eredua eta urte anitzeko finantzaketa-modua jar dezatela, harentzat kudeaketa-eredu berria erraztu eta finkatzeko.

## V. EGINDAKO LANAREN AZTERKETA

Atal honetan, aurreko ataleko ondorio eta gomendio orokorrak garatu eta zabalduko ditugu, haiek honako ataletan xehakaturatuta: alderdi juridiko eta antolamendukoak, Santa Cecilia Kontzertu Sozietatearen eta Pablo Sarasate Fundazioaren arteko harremanak; eragiketa aipagarrien xehetasun batzuk, eta bi entitateen egoera ekonomikoa.

### A) ALDERDI JURIDIKO ETA ANTOLAMENDUKOAK

1) Ez da kongruentea fundazioen berezko izaerarekin halakoak sortzea beren helburuei aurre egiteko etekinak sortuko duen ondarea eduki gabe eta etekin horiek bere jardueraren bitartez sortzeko modurik eduki gabe, eta, horrenbestez, diru-laguntza publikoen eta, beraz, Parlamentuaren urteroko erabakien mende jarriz, Ganbera honen 2009ko txostenean adierazi genuen bezala.

2) Santa Cecilia Kontzertu Sozietatea eta Pablo Sarasate Fundazioa antzeko helburuak dituzten irabazi asmorik gabeko bi entitate dira, elkarrekin lotuta daudenak eta beren elkarrekiko harremanak formalki arautu ez dutenak. Ezin izan dugu bi entitate horien arteko akordio edo hitzarmenik aurkitu, ez eta haien zuzendaritza-organoen horri buruzko erabakirik ere.

3) Sozietatearen estatutuek diote orkestra-formazio bat edukiko duela; Fundazioarenek, ordea, ezer ere ez diote horri buruz. Ez dugu inongo dokumentaziorik aurkitu orkestraren atxikipen berria justifikatzen duenik; izan ere, orkestra Fundazioaren menpean dago eta musikariek lan kontratu bat dute Fundazioarekin, eta Fundazioaren hitzarmen kolektiboa aplikatzen zaie.

4) Kontzertuetatik heldu diren diru-sarrerak (abonamenduak eta sarrera-txartelak) Fundazioan kontabilizatu dira 2006ra arte, eta une horretatik aurrera, berriz, Sozietatean. Ez dugu aurkitu aldaketa hori azaltzen duen akordio edo dokumenturik.

Sozietatearen estatutuen 6. artikulua, baliabideen artean, bazkideen kuotak eta txarteldegiko diru-sarrerak daude. Fundazioaren estatutuen 20. artikuluan, baliabideen artean, honako hauetatik heldutakoak aipatzen dira: kontzertuak, argitalpenak, musika-edizioak eta antzekoak.

Horri dagokionez, kontuan hartu beharra dago Fundazioari bere jarduerak egiteko ematen zaion diru-laguntzarako hitzarmenean ezarrita datorrela diru-laguntza hori, Diru-laguntzei buruzko Foru Legeko 27.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, osatu beharra dagoela hain zuzen ere diru-laguntzaren xede den jarduerarako diru-sarrera edo baliabide berekiekin. Kontzertuetako sarrera-txartelei eta abonamenduei dagozkien diru-sarrerak diruz lagundutako jardueratik heldu direnak dira, eta jarduera hori materialki burutzen duen entitateari dagozkio; hau da, Fundazioaren diru-sarrera berekiak dira.

5) Santa Cecilia Kontzertu Sozietateak Fundazioaren Patronatuan parte hartzeak aukera eman du musika-zaleen iritzia kontuan har dadin Orkestrari buruzko erabakietan, nahiz eta finantzaketan ko-erantzukizunik ez eduki.

### B) PABLO SARASATE FUNDAZIOAREN ETA SANTA CECILIA KONTZERTU SOZIETATEAREN ARTEAN GURUTZATUTAKO KONTUEN KONTABILITATE-ZERIKUSIAK

6) Praktikan, eta kontuan hartuta bi entitateek antzeko xedeak dituztela, modu bereizi gabean erabili dira bi entitateen funtsak betebeharre aurre egiteko, baliagarri zeukaten diruaren arabera. Kontrapartida kontabilitate-kontu komunean jasotzen zen; horrenbestez, kontu horrek saldo zorduna ala hartzekoduna izan dezake, eragiketen arabera.

7) Bi entitateen kontabilitateek zuzen islatu dituzte jarduketak hauek; horrenbestez, bat etorri dira Sozietatearen kontabilitate-saldoak eta Fundazioarenak.

8) Baldin eta 4. ondorioan aipatutakoa kontuan hartuta jotzen badugu sarrera-txartelen eta abonamenduen zenbatekoek azken hartzaile gisa Fundazioa eduki behar dutela, honako hauek izan dira entregatu gabeko kopuruak:

Urtea	Kontzeptua		
	Kuoten bidezko diru-sarrera	Pablo Sarasate Fundazioaren ordainketak	Aldea
2007	515.895	515.895	0
2008	484.265	433.730	50.535
2009	448.917	416.632	32.284
2010	456.575	342.431	114.144
2011	472.206	377.206	95.000
2012	485.617	413.685	71.932
2013	459.894	413.906	45.988
2014	428.081	428.081	0
<b>Guztira</b>	<b>3.751.450</b>	<b>3.341.567</b>	<b>409.883</b>

Kopuru horiei kontzertuak direla-eta Sozietateak kobratu dituen hiru faktura gehitu behar zaizkie. Honako hauek dira zenbatekoak:

UNICEFen fakturazioa, 2010eko kontzertua	9.500
UNICEFen fakturazioa, 2010eko kontzertua	17.500
Nafarroako Gobernuaren fakturazioa, 2010eko Nafarroaren Eguneko kontzertua	17.700
<b>Guztira</b>	<b>44.700</b>

Horrenbestez, honako hau izanen litzateke Fundazioan sartu ez den kopuruaren guztizkoa:

Sarrera-txartelak eta abonamenduak	409.883
Kontzertuengatikoko fakturak	44.700
<b>Guztira</b>	<b>454.583</b>

9) Sozietateak honako gastu hauek erregistratu ditu –banaka aztertu ditugu hurrengo ondorioetan–:

Dohaintzak, UNICEFi	129.148
Gerentzia eta kudeaketa	92.777
Askotariko gastuak	49.409
Errentamenduak	17.873
Banku-gastuak*	2.671
<i>Honaino, guztira</i>	<i>291.878</i>
Pablo Sarasate Fundazioarentzako diru-laguntza, musikari gazteen orkestra-akademia bat sustatzeko.	400.000
<b>Guztira</b>	<b>691.878</b>

\*Ekitaldi batzuetan, sarrera-txartelen zenbatekoak kudeaketa gasturik gabe erregistratu dira; beste batzuetan, berriz, zenbateko gordina erregistratu da; horrenbestez, egindako gastuak kendu ditugu.

10) Laburbilduz, Sozietateak 454.583 euroko diru-sarrerak eduki ditu eta 691.879 euroko gastuak egin ditu; horrenbestez, 237.296 defizita sortu du.

## C) SANTA CECILIA KONTZERTU SOZIETATEAK JASANDAKO GASTU-KONTZEPTUEN AZALPENA

11) UNICEFi egindako dohaintzak (129.148 euro).

Denboraldiko kontzertuetako bat (abendukoa) UNICEFen alde egiten da.

Ez dizkigute eskuratu egindako jarduketak baimentzen edo azaltzen dituzten dokumentuak. Gehienetan, Fundazioak kontzertua zela-eta UNICEFi faktura bat egiten zion, zegokion BEZarekin, eta Sozietateak UNICEFi dohaintza bat egiten zion, zenbateko berekoa baina BEZa kenduta.

Sozietatearen diru-emateak honako hauek izan dira –kontzertua zein urtetakoa den begirata, ez dohaintza noiz egin den–:

Urtea	Zenbatekoa	Ordainketa noiz kontabilizatu den
2007	25.077	2009/03/10
2008	22.412	2009/03/10
2009	30.173	2010/01/29
2010	22.900	2011/01/03
2011	2.966	2012/02/09
2012	12.180	2013/03/05
2013	12.180	2014/02/12
<b>Guztira</b>	<b>129.148</b>	

Hau da, Fundazioak fakturatu egiten du eta Sozietateak sarrera-txartelen zenbatekoarekin bat ez datorren dohaintza bat ematen du; bestalde, sarrera-txartel horien kostua, abonamendua dutenen kasuan, urteko abonamenduan sartzen da.

2014an, ez da fakturarik egin, ez eta geroko dohaintzarik ere; horrenbestez, aurrerantzean errepikatuko ez den jokabide bat dela jo daiteke.

12) Gerentzia eta kudeaketa (92.777 euro).

Santa Cecilia Kontzertu Sozietateko Zuzendaritza Batzarreko kideekin izandako bilkuran, gutun bat eskuratu ziguten, non aipatzen baitute, akta-liburuan berariazko akordiorik ez dagoenez, 2012ko apirilaren 23an *“ikus-onespena eman diotela gerentearentzat, funts berekietatik, 95.624,20 euroko kopurua ordaintzeari. Gobernuak derrigoritutako soldata-jaitsiera dela eta, gerenteak planteatu zuen ezin zuela beharpen hori onartu eta beste eskaintza bat bazuela, eta, horrenbestez, joan egin behar zuela. Fundazioa zein momentutan zegoen ikusita, Zuzendaritza Batzarrak onartu zuen bi urtetako soldata-aldea osatzea, gerentea izaten jarrai zezan”*.

Jarduketa hori justifikatzen dute esanez nolako egoera zailean zegoen Orkestra, zeren eta une hartan zuzendari artistikoa ordeztua baitzen, 2011-2012ko denboraldia amaitzen ari baitzen, eta hurrengo denboraldiko –2012-2013 urteetako– programazioa ixten eta hitzarmena negoziatzen ari baitzen.

Fundaziotik ez digute inongo dokumenturik helarazi egoera horri buruz, baina bai egiaztatu ditugu Sozietatearen 2013ko iraileko aktak, non aipatzen baita *“gerenteak (Fundaziokoak) jakinarazi duela Nafarroako Gobernuko Kultura Kontseilaritzatik aipatu diotela Pablo Sarasate Fundazioko gerente-zerbitzuak emateari utzi beharrea dagoela, arrazoi ekonomikoak tarteko. Kontuan hartuta 2013/2014 denboraldiaren antolaketak, bi zuzendari berriekin, eta abian den hitzarmen kolektiboaren negoziazioak ez dutela bideragarri egiten karguari berehala uztea, akordio batera iritsi da Kultura Kontseilaritzatik karguan 2014ko Aste Santura arte jarraitzeko, nahiz eta kargua bere kabuz utzi ahalko duen data hori baino lehen. Nolanahi ere, kalte-ordainerako eta langa-bezi-sarirako eskubideari eutsiko dio, lan-kontratu indardunari jarraituz”*.

Nominak aztertuta, ikusten da 2012ko ekainetik gerentearen nomina kopuru txikiagokoa dela, nahiz eta jasota ez egon Fundazioak horri buruzko berariazko erabakirik hartu izana.

2012ko ekainean, Santa Cecilia Kontzertu Sozietateak 92.777,50 euro gehi beste 2.846,70 euro, ordainketa geroratzearen interesengatik, ordaindu zizkion, kontabilitate-egunkarian ageri den bezala.

Kopuru hori Fundazioko gerentearen hiru fakturari dagokie, 2010ean, 2011n eta 2012an egindakoak, “elkarteko gerentzia-, zuzendaritza- eta administrazio-lanetan jarduteagatik”; honako ko-

puru hauek jasotzen dituzte, BEZa barne: 36.167 euro, 37.347 euro eta 19.263,50 euro, hurrenez hurren.

Kontzeptua	Zenbatekoa	BEZa	Guztira
2010. urtea	30.650,00	5.517,00	36.167,00
2011. urtea	31.650,00	5.697,00	37.347,00
2012. urtea	16.325,00	3.938,50*	19.263,50
<b>Guztira</b>	<b>78.625,00</b>	<b>15.152,50</b>	<b>92.777,50</b>

\*Fakturan akats bat badago, zeren eta kopuru zuzena 2.938,50 eurokoa baita.

Kontuan hartuta Sozietateak langilerik ez duela, kontabilitateaz Fundazioko langileak arduratzen direla eta haren kudeaketa ia abonamenduen kobrantzara mugatuta dagoela –eta hori bera, gainera, Fundazioko langileek ere egiten dute–, ez dakigu eginkizun horiek zein izan daitezkeen, eta, bestetik, ez dakigu, ezta ere, Fundazioak ordainsarien bikoiztasun hori ezagutzen zuen.

Santa Cecilia Kontzertu Sozietatearen Batzarrak adierazi bezala, gerenteak hainbat eginkizun betetzen zituen Sozietatearentzat: aholkularitza artistikoa, aktak egitea, Fundazioko patronatuetarako prestakuntzak eta abar.

Gure kalkuluen arabera –nometako datuekin egin ditugu, zeren eta ez baitauzkagu kopuru horretara iristeko jarraitu diren irizpideak– 2012ko ekaineko ordainsarien eta 2014ko otsaileko –kargu-uzte efektiboaren data– ordainsarien arteko aldea 77.000 euro ingurukoa izan zen, edo, bestela, 67.000 euro ingurukoa, kontuan hartuta 2012an ez zela abenduko aparteko lansaria ordaindu.

Hau da, 2012ko ekainetik 2014ko martxora jasoko ez diren diru-sarrerak konpentsatzen dira 2010eko, 2011ko eta 2012ko fakturen ordainketaren bitartez.

Faktura horiek ez dute jasotzen PFEZaren atxikipena, zeina, gure ustez egin beharrekoa baitzen.

Bestalde, egiaztatu dugu Fundazioko gerentearen 2009ko abenduko nominan 9.500 euroko ordainketa ageri dela “Santa Ceciliaentzako ordaina” kontzeptuaren pean. Ordainsari horri ez zaio PFEZaren atxikipenik egin.

13) Askotariko gastuak (49.409 euro).

2011ko ekainean, Fundazioaren banku-kontu batetik ordainketa bat egin zen, Sozietatearekiko baterako kontuaren kargura, non 49.409 euroko gastu bat erregistratzen baita.

Ordainketaren kontabilitate-dokumentutik, non soilik onuradunak eta zenbatekoak ageri baitira, ondorioztatzen da gastu hori Fundazioko bulegoko langileei (gerentea barne) egindako ordainketei dagokiela; langile horiek, izan ere, esker-sari bat izan zela adierazi digute. Ordainketa horri dagokionez, ez dago jasota PFEZaren atxikipenik egin denik.

14) Errentamenduak (17.873 euro).

Gerentearen kontratuan, soldataz gainera, etxebizitzaren alokairuaren ordainketa jasota dago. 11. ondorioan deskribatutako egoeratik aurrera, Fundazioak espezietan egindako ordainketa hori kendu egiten zaio praktikan, baina Sozietateak ordaintzen dio. Kopurua 2012ko zazpi hilabeteri, 2013. urteari eta 2014ko urteko hiru hilabeteri dagokie; hau da, soldata gutxitzen hasten den momentutik behin betiko kargu-uztera arteko aldeari.

15) Fundazioarentzako diru-laguntza (400.000 euro).

Fundazioaren kontuetan erregistratutako galerek, 2006aren aurrekoek, funts negatibo berekiak edukitzeko egoeran jarri dute.

“Egoera ekonomiko ezohiko” horrek ez zuen funtzionamendua eragozten, zeren eta bere jar-duera betetzeko behar zuen finantzaketa baitzuen, funtsean Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza.

Diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legeko 16. artikuluari jarraituz, diru-laguntzen zenbatekoak, diru-laguntzaren xede den jardueraren berezko diru-sarrerekin edo baliabideekin batera,

ezin izanen du gainditu onuradunak bete beharreko jardueraren kostua. Artikulu horrek praktikan eragozten du Fundazioak lor ditzala ondare-orekako egoera hori konpentsatzeko etekinak.<sup>1</sup>

Adierazi digutenaren arabera, azken hilabeteetan ondare-desorekak zaildu egiten zuen kreditu-eragiketak egin ahal izatea. Egoera horri konponbidea emate aldera, 2014an, Sozietateak 400.000 euro eman zizkion Fundazioari; alabaina, Sozietateak dauzkan baliabide bakarrak abonamenduenak eta sarrera-txartelenak dira, Fundazioari gero sartzen dizkionak.

Gure iritziz, Sozietateak ez du ekarpen hori egiteko behar adina baliabide.

Fundazioarekiko daukan zorra aitor dezake, baina aparteko diru-sarrerarik lortu ezean, ezin du zenbateko hori ordaindu.

Bestalde, behin Sozietateak diru-laguntzaren eragiketa aitortuta, ondare-desorekako egoeran gelditzen da.

Hau da, Fundazioaren ondare-desorekari "konponbidea eman" zaio, baina horren truke Sozietatea da ondare-desorekako egoeran dagoena.

Gure ikuspuntutik "fikziozko eragiketa" bat da.

#### D) FUNDAZIOAREN ETA SOZIETATEAREN EGOERA EKONOMIKOA

16) Sozietateak aurkeztutako kontuen arabera –zeinak ez baitira auditatu–, haren diru-sarrerak kontzertuetako sarrera-txartelen eta abonamenduen bidez eta diru-laguntza txikiren baten bidez lortutakoak dira. Haren gastuak gutxienekoak dira, zeren eta ez baitu langilerik eta ia jarduera ekonomikorik ez baitu.

Hartara, atal honetan aipatutako eragiketak alde batera utzi eta berarenak hartzen baditugu kontuan, aztertutako aldiko gastuen batez bestekoa urtean 5.000 euro ingurukoa da.

Haren balantzea, gure ikuspuntutik, ez da zuzen egiten, zeren eta Fundazioari egindako ekarpenari (espezietan) dagokion finantza-aktibo bat jasotzen baitu.

Fundazioari sorrera-zuzkidura gisa egindako ekarpena funts galdura egindako diru-emate bat da; horrenbestez, gastutzat erregistratu beharra dago eta ez aktibotzat, zeren eta fundazioek nor-tasun berekia baitute eta ez baitute merkataritza-izaerako mendekotasunik.

Diru-laguntzaren eragiketa baliozkotzat ematen badugu, sozietateak ondare garbi negatiboa dauka.

17) Fundazioaren kontu auditatuen arabera, diru-laguntzaren eragiketa onartzerakoan, azken horrek ondare-oreka berreskuratu du. Hura kontuan hartu ezean –eta horren aldekoa da gure iritzia– ondare-desorekan jarraituko luke.

Fundazioak orkestra mantentzeko 2006tik 2014ra lortu dituen diru-sarrerak 2010eko 6,4 milioiko kopuruaren eta 2013ko 4,8 milioiko kopuruaren artean daude (2012. urtea ez dugu kontuan hartu, zeren eta ez baitzen ekitaldi osoa izan, ekitaldia ixteko data aldatu zelako); diru-sarrera horiek, funtsean, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzaren bidez lortzen ditu, eta diru-laguntza horren kopurua jaitsi denean, kutxen fundazioetatik lortutako laguntzen bidez.

Fundazioaren sorrera-zuzkidurak edo ondare-zuzkidurak ez dute inongo etekinik sortzen, eta ondare-egoerak ez du eraginik urteko funtzionamenduan, Nafarroako Gobernuaren edo, kasu bada, beste finantzabide batzuen finantzaketa dagoen bitartean.

2014an, jarduera arruntaz kanpoko gastu bat egin da, 339.591 eurokoa. Gastu aipagarrienak dira Iruñeko Lan-arloko Epaitegiaren abenikoari dagokiona, zeinak 268.772 euro egiten baitu, eta 52.823 euroko beste kopuru bat, Arriaga Antzokiak eskatutakoa, emanaldi batera ez joateagatik

---

<sup>1</sup>2014an, aldaketa bat gehitu da, zeinak aukera ematen baitu, baldin eta baliabideen erabilera efizientearen ondorioz inbertitu gabeko gerakinak baldin badaude, organo emaileari eskatzeko haiek erabili ahal izan daitezen izaera bereko beste jarduera batzuetan.

eta horrekin kontratua ez betetzeagatik. Ez-betetze hori heldu zen musikariek jotzeari ezezkoa ematek, hitzarmena negoziatzen ari izatearen ondorioz.

Egindako lanaren ondorioz, honako hau gomendatzen dugu:

- *Nafarroako gizarteak, eta haren izenean Gobernuak edo Parlamentuak, erabaki behar dute nolako musika-jarduera nahi duten, eta, horrenbestez, nolako orkestra eduki nahi duten, bai eta aurrekontu orokorretatik horretara zenbat diru bideratu nahi duten ere.*

*Horri dagokionez, honako oinarrizko helburu hauek aipatu behar ditugu, beste batzuen artean:*

- a) Nafarroako herritarrei musika-zerbitzuak eskaintzea kontzertu-zikloen bitartez.*
- b) Gizartean musika lantzea, hezkuntzaren eta sozializazioaren arloen ardatz gisa.*
- c) Bitarteko bat jartzea nabarmentzen diren interprete nafarrek Nafarroako orkestra batean jo ahal izateko.*
- d) Munduan barna "Nafarroaren erakusleihoa" izatea, bira eta kontzertuen bitartez.*
- e) Musika klasikoa gazteei eta musika-zale ez direnei hurbiltzea.*

*Logikoa denez, helburu horietako bakoitzak baldintza desberdinak behar ditu, eta ez da beti erraza izanen haiek bateragarri egitea.*

- *Kontuan hartuta musikaren inguruko plangintzak eskatzen duen denbora, horretan ukitutako pertsonen kopuru handia eta aurrekontuaren bolumena, komenigarria da orkestrak urte anitzeko plana izan dezala, bai eta finantzaketarako urte anitzeko hitzarmena ere. Hartara, orkestrak funtzionamendu arrunterako lortu behar dituen baliabide gehigarriak ezagutuko ditu.*

- *Orkestra baten jarduera osoa entitate bakarrak zuzendu beharko luke eta, bi entitateei eutsiz gero, argi ezarri eta arautu behar dira bien arteko harremanak. Halaber, badirudi agerikoa dela gastuak bere gain hartzen dituen entitateak izan behar duela diru-sarrerak jasotzen dituen.*

- *Praktikan, honako hauek dira antolaketa-aukerak:*

- a) Fundazioa desagertu eta Orkestra Sozietatearen menpe geratzea. Gure ustez Sozietateak bere antolamendua indartu beharko luke kudeaketaz arduratzeko.*

- b) Sozietatea desagertu eta Orkestra Fundazioaren menpe geratzea.*

- c) Bi entitateak desagertzea eta entitate berria sortzea (merkataritza-entitatea), edo lehendik dagoen bati atxikitzea.*

- d) Fundazioko langileek entitate bat sortzea –esate baterako, kooperatiba bat– eta bi entitateak desagertzea.*

- e) Aurreko helburuei erreparatuta, baldin eta helburu nagusia bada Iruñean ziklo batzuk eskaintzea eta, funtsean, alderdi ekonomikoak kontuan hartuz, orkestra desagertzea (Espainiako zaharrena da) eta beste toki batzuetako orkestrekin hitzarmenak egitea kontzertuak antolatzeko.*

- f) Gobernuak orkestra bere gain hartzea, eta Nafarroako Gobernuko departamenturen baten menpe egotea zuzenean.*

Musika-jarduerak ez du emaitza ekonomiko positiborik sortzen; hori dela eta, hautatzen den eredu edozein dela ere, finantzaketa publikoa beharko du. Hala eta guztiz ere, zenbat eta txikiagoa izan diru-laguntza publikoekiko menpekotasuna –hau da, orkestra zenbat eta autonomoagoa izan–, orduan eta funtzionamendurako berme handiagoak egonen dira. Logikoa denez, diru-sarrerak berekiak, sarrera-txartelen bidezkoak, handitzeak eta aukerako baliabide berriak lortzeak, bai eta gastuak gutxitzeak ere, handiago egingen dute orkestraren autonomia-maila.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas



**I. ERANSKINA. SANTA CECILIA KONTZERTU SOZIJETATEAREN BALANTZEA, 2014-12-31n**

## Aktiboa

(Auditatu gabe)

		Kontuen Ganbera
<b>AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>		
Ibilgetu ukiezina	2.234,20	2.234,20
Taldeko enpresetako eta elkartuetako epe luzeko inbertsioak.	145.461,72	
<b>AKTIBO EZ-KORRONTEA, GUZTIRA (A)</b>	<b>147.995,92</b>	<b>2.234,20</b>
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>		
Bestelako zordunak	12.810,00	12.810,00
Epe laburreko ekintzak	1.892,25	1.892,25
<b>AKTIBO KORRONTEA GUZTIRA (B)</b>	<b>14.702,25</b>	<b>14.702,25</b>
<b>AKTIBOA GUZTIRA (A + B)</b>	<b>162.698,17</b>	<b>16.936,45</b>

## Ondare garbia eta pasiboa

		Kontuen Ganbera
<b>FUNTS BEREKIAK</b>		
Kapitala	3.317,24	3.317,24
Erreserbak	323.588,46	177.826,74
Ekitaldiko emaitza		-400.144,72
<b>ONDARE GARBIA, GUZTIRA</b>	<b>326.905,70</b>	<b>-219.000,79</b>
<b>C) PASIBO KORRONTEA</b>		
Epe laburreko zorrak	235.937,24	235.937,24
<b>GUZTIZKOA ETA PASIBOA</b>	<b>235.937,24</b>	
<b>-EKITALDIKO EMAITZAK</b>	<b>-400.144,77</b>	
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>162.698,17</b>	<b>16.936,45</b>

**II. ERANSKINA. PABLO SARASATE FUNDAZIOAREN EGOERAREN BALANTZEA**

## Aktiboa

Profesional independente batek auditatua

<b>A) AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>		<b>193.447,46</b>
Ibilgetu ukiezina	7.623,35	
Ibilgetu materiala	180.041,20	
Epe luzeko finantza-inbertsioak	5.782,91	
<b>B) AKTIBO KORRONTEA</b>		<b>1.237.730,88</b>
Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	1.042.911,74	
Epe laburreko finantza-inbertsioak	5.200,00	
Epe laburreko ekintzak	72.578,33	
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	117.040,81	
<b>AKTIBOA GUZTIRA (A+B)</b>		<b>1.431.178,34</b>

## Ondare garbia eta pasiboa

<b>A) ONDARE GARBIA</b>		<b>52.609,29</b>
Kapitala	157.781,96	
Aurreko ekitaldietako emaitzak	-504.617,10	
Ekitaldiko emaitza	-555,57	
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	400.000,00	
<b>B) PASIBO EZ-ARRUNTA</b>		<b>113.616,66</b>
Epe luzeko zorrak	113.616,66	
<b>C) PASIBO KORRONTEA</b>		<b>1.264.952,39</b>
Epe laburreko hornikuntza	52.822,55	
Epe laburreko zorrak	7.764,58	
Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	1.203.910,71	
Aldizkatzeak	454,55	
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA (A+B+C)</b>		<b>1.431.178,34</b>

## **Nafarroaren Bruselako Ordezkaritzari buruzko fiskalizazio txostena (2003-2014), Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 25ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Nafarroaren Bruselako Ordezkaritzari buruzko fiskalizazio txostena (2003-2014), ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Nafarroaren Bruselako Ordezkaritzari buruzko fiskalizazio txostena (2003-2014), Kontuen Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

- I.** Sarrera (19. or.).
- II.** Nafarroaren Bruselako Ordezkaritza (19. or.).
  - II.1. Aurrekariak, sorrera eta eginkizunak (19. or.).
  - II.2. Ordezkaritzaren gastuak (21. or.).
- III.** Helburua (22. or.).
- IV.** Norainokoa eta mugak (22. or.).
- V.** Ondorioak eta gomendioak (23. or.).
  - V.1. Nafarroaren Bruselako ordezkaritzaren gastuaren bilakaera (2013-2014) (23. or.).
  - V.2. NBOaren gastuen azterketa (24. or.).
  - V.3. Nafarroaren Bruselako Ordezkaritzaren jardueri buruzko azterketa. (25. or.).

## I. SARRERA

2015eko irailaren 21ean, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak onetsi zuen Kontuen Ganberari eskatzea, Podemos-Ahal Dugu taldearen ekimenez, txosten bat egin zezala honako gai honi buruz:

*"...Nafarroaren Bruselako bulegoari buruz, sortu zenetik gaur arte egin dituen jarduketei buruz eta haiei lotutako kostuei buruz, bai eta jarduketa horien eraginkortasunari buruz ere..."*

Lan hori azaroan eta abenduan egin zuen auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantalde batek, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoekin, informatikoekin eta administratiboekin lankidetzan.

Txostenak bost atal dauzka, sarrera hau barne; bigarrenean, Nafarroaren Bruselako Ordezkaritzari (aurrerantzean, NBO) buruzko deskribapen orokor bat egiten da; hirugarren eta laugarrenean, txostenaren helburuak, norainokoa eta mugak azaltzen dira; azkenik, bosgarrenean, gure lanaren ondorioak eta gomendioak deskribatzen dira.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik, eskerrak eman nahi dizkiegu NBOko langileei eta "Ogasuna eta Finantza Politika", "Lehendakaritza, Funtzio Publikoa, Barnea eta Justizia", "Garapen Ekonomikoa" eta "Herritarrekiko eta Erakunde Harremanak" departamentuetako langileei.

## II. NAFARROAREN BRUSELAKO ORDEZKARITZA

### II.1. AURREKARIAK, SORRERA ETA EGINKIZUNAK

Azaroaren 5eko 216/1987 Foru Dekretuak, zeinak Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren egitura organikoa ezarri baitzuen, lehenengo aldiz aurreikusi zuen Nafarroako Gobernuak eginkizun eta eskumen batzuk zituela Europar Batasunarekiko harremanen arloan. Dekretu horrek eragin zuen "Batasuneko Aferetarako Atala" sortzea, Ekonomia Zerbitzuari atxikia.

1992an, atal hori Lehendakaritza Departamentuko Idazkaritza Nagusiaren menpe egotera pasatu zen, eta "Kanpo Ekintzarako Atala" izena eman zitzaion.

1993an hasi zen Nafarroako Gobernua Bruselan presentzia izaten, enpresa belgikar batekin aholkularitza-kontratu bat sinatuz. Ordurako, Espainiako beste autonomia erkidego batzuek bazuten ordezkaritzarik Bruselan.

1995ean, Sociedad de Desarrollo Exterior de Navarra SL (Sodexna) sortu zen. Hartan Nafin-cok ehuneko 60ko partaidetza zuen eta Sodena Sozietate Publikoak ehuneko 40ko partaidetza. Haren eginkizunak gero NBOari eman zitzaizkionak dira, eta hurrengo orrialdean azalduko ditugu.

Jasota dago 1996an sozietate horretan hiru pertsonak lan egiten zutela: arduradun edo ordezkarria (zeinak izen hori jada jasotzen baitzuen), ordezkarriaren laguntzaile bat eta idazkari bat. Sozietate horren jarduera Nafarroako Gobernuak finantzatzen zuen hitzarmen baten bitartez, eta, horretaz gainera, aipatutako langileek Bruselan zeukaten bulegoaren alokairua ordaintzen zuen.

1996an, Kanpo Ekintzarako Atala "zerbitzu" bilakatu zen, eta Ekonomia Departamentuari atxiki zitzaion.

Otsailaren 15eko 38/1999 Foru Dekretuak ezartzen du zerbitzu horrek pixkanaka joan behar duela hartzen Sodexnari esleitutako eginkizunak, eta honako lanpostuak ematen dizkio "Kanpo Ekintzarako Zerbitzuari":

- Nafarroako Gobernuaren Bruselako ordezkarria, behin-behineko izaera izanen duena eta izendapen askekoa. Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak urtero ezartzen dituen ordainsariak izanen ditu.

- A mailako tituludun bat, zeinari ordainsari osagarri batzuk ezartzen baitzaizkio.

- D mailako administrari laguntzaile bat, bere ordainsari osagarriekin.

Horrenbestez, dekretu horrekin, 1999an, ez zen berez NBOa sortu, eta ez zitzaizkion eginkizun edo eskumen batzuk esleitu; arestian aipatutako lanpostuak sortu besterik ez zen egin.

2003an, lehendik zegoen "Kanpo Ekintzarako Zerbitzuaz" gainera, "Europako Eraikuntza Prozesuan Parte Hartzeko Zerbitzua" sortu zen.

2007an, lehenengo aldiz, 118/2007 Foru Dekretuak berariaz atxikitzen dio NBOa Kanpo Ekintzarako Zerbitzuko Nazioarteko Garapeneko Zuzendaritza Nagusiari, zerbitzu mailarekin, baina ez zen horri buruz beste ezer ere arautu.

2011n, desagertu egin zen 2003an sortutako zerbitzuetako bat, eta "Nazioarteko Proiekzioaren Zerbitzua" izenekoari eutsi zitzaion bakarrik.

Urtarrilaren 16ko 4/2013 Foru Dekretuak jarraitzen du NBOa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuari atxikitzen, eta, gainera, lehenengo aldiz, berariaz aipatzen ditu arengatikizunak; honakoak, hain zuzen:

- *"...Europar Batasunaren aurrean Nafarroaren interesak ordezkatzeara, eta horiek sustatu eta babestea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren beste organo batzuei esleitutako eskumenak galarazi gabe.*

- *Espainiako Erreinuak Europar Batasunean duen ordezkartza iraunkorrarekin eta Espainiako beste autonomia erkidego batzuen bulegoekin edo beste estatu kide batzuetako antzeko entitateekin lankidetzan aritzea, Bruselan kokatuak daudenekin.*

- *Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Batasuneko erakundearen arteko harremanak koordinatzea, Nafarroarentzat interesekoak diren proiektuen eta programen jarraipena egiteko.*

- *Nafarroako Foru Komunitatea atzerrian sustatzen eta proiektatzen laguntzea.*

- *Nafarroako Foru Komunitatearen interes sozioekonomikoen alde jardutea, Batasuneko ekintzek edo programek horiengan eragina badute.*

- *Batasuneko politikei eta programei buruz informatzea eta aholku ematea.*

- *Europar Batasuneko erakundeek erabakiak hartzeko jarraitutako prozesua jarraitzea eta erakunde horiek araudia sortzeko prozesuetan informazioa lortzea, Nafarroako Foru Komunitatearen interesei eragiten dien neurrian.*

- *Europar Batasuneko Eskualdeen Batzordearen lanen jarraipena.*

- *Nafarroako Foru Komunitateko sektore publiko eta pribatuarentzat aukerak bilatzea enpresaren eta finantzen arloan.*

- *Aholkularitzarako logistika zentroa den aldetik, Nafarroako Foru Komunitateko entitate publiko eta pribatuarentzako aholkularitza teknikoa ematea.*

- *Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren zuzendari nagusiak agindutako edo indarreko xedapenek esleitutako beste edozein zeregin.*

- *"...Europar Batasunaren aurrean Nafarroaren interesak ordezkatzeara, eta horiek sustatu eta babestea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren beste organo batzuei esleitutako eskumenak galarazi gabe..."*

NBOak Ekonomia Departamentuari atxikita jarraitu zuen 2015eko ekainera arte. Une horretan, Nafarroako Gobernuaren egitura nabarmen aldatu zen, maiatzean hauteskundeak egin ondoren. Hartara, Nazioarteko Proiekzioaren Zerbitzua Garapen Ekonomikorako Departamentuan sartu zen, eta NBOa, berriz, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuan. Gainera, 129/2015 Foru Dekretuak NBOari Zuzendaritza Nagusiaren maila (orain arte zeukan zerbitzuaren mailaren ordezkari) ematen dio, eta arestian aipatutako eginkizun berak esleitzen dizkio.

Gaur egun badago, eta aztertutako aldi osoan zehar egon da, Espainiako autonomia erkidego guztien ordezkartzarik Bruselan. Europako Erregioen Batzordearen bulego erregionalen erregistroaren arabera, Europar Batasunaren kide diren 28 estatuen 242 bulego daude.

## II.2. ORDEZKARITZAREN GASTUAK

NBOaren gastuak, funtsean, langile-gastuek eta ordezkariaren funtzionamendurako gastuek osatuta daude.

### LANGILE-GASTUAK

Ordezkararen eta administrari laguntzailearen lanpostuak etengabe egon dira beteta; A mailako tituludunari dagokiona, berriz, ez da sekula bete; izan ere, 2008tik lanpostua ez da agertzen plantilla organikoan.

Nafarroako ordezkariaren lantsariak Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean ezartzen dira. 2012-2015 aldian urtean 75.410 eurokoak dira; horretaz gainera, langilea funtzionarioa bada, araudi indardunaren arabera egokitu dakizkiokeen graduaren eta antzinatasunaren ordainsariak edukiko ditu.

Langile administratiboarena, 2007ra arte, D mailako lanpostu batekin bete izan da, sorreran ageri zen bezala. Urte horretatik aurrera, berriz, lanpostu hori C mailakoa izatera pasa zen. Lanpostu horri lotutako ordainsari osagarriak ehuneko 97,2koak izan dira 2003-2015 aldiko urte guztietan, lanpostuaren maila zein den ere.

Aurreko guztiaz gainera, 2003-2010 aldian, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin lankidetzan, Europar Batasunaren inguruko gaietako gradu ondoko ikasleen prestakuntzarako beken deialdia egin zuen. Bekaren iraupena urtebetekoa zen, eta eginkizunetako batzuk Iruñean eta beste batzuk NBOan bete beharrekoak ziren. NBOak emandako datuen arabera, 23 izan dira aipatutako aldian zerbitzuak eman dituzten bekadunak. 2011tik aurrera, berriz, ez da beka mota horrengatiko gasturik jaso.

### FUNTZIONAMENDU GASTUAK

2003an, NBOaren funtzionamendu gastuak kontabilizatzeko berariazko kontusail bat zegoen; 2004tik aurrera eta 2012ra arte, berriz, aurrekoaz gainera, beste kontusail bat dago NBOaren egoitzaren alokairuak sortutako gastuak kontabilizatzeko.

2003ko eta 2004ko zati bateko alokairu gastuak NBOaren berariazko kontusail batean ageri beharrean, Kanpo Ekintzarako Zerbitzuaren kontusail batean erregistratu dira. 2012tik aurrera, NBOak lehengo egoitza utzi eta Espainiaren Europar Batasuneko Ordezkaritza Iraunkorraren (EEBOI, hemendik aurrera) egoitzara aldatu zen, eta kontzeptu horrengatiko gastua eta, horrenbestez, kontusaila, desagertu egin ziren.

Ez dugu aurkitu NBOaren gastuak erregistratzen duen kontusail gehiagorik.

Gastu horien aurrekontu-kudeaketarako prozedura Nafarroako Gobernuaren aurrekontu orokorrak arautzen dituzten foru legeetan jasota dago. Honakoa zehazten dute foru lege horiek, hain zuzen:

a) Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariaren jardunerako behar diren gastu guztiak kutxa finkoko aurrerakinekin edo, hala bada, justifikatu beharreko ordain-aginduekin ordainduko dira.

Horri dagokionez, kontuan hartu beharra dago justifikatu beharreko kutxa finkoko aurrerakinak eta ordain-aginduak 8/1988 Foru Legea indargabetu zuen Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legean araututa daudela.

b) Nafarroako Gobernuaren Bruselako ordezkariak arestian esandako gastuak eta ordainketak baimendu ahalko ditu, baina horretarako dagokion zuzendaritza nagusiaren baimena beharko du, baldin eta gastu eta ordainketa horiek 3.000 eurotik 12.000 eurora bitarte egiten duten kopuruak gainditzen badituzte, aztertutako aldian.

c) 2011tik aurrera, Nafarroako Gobernuak Kontu-hartzailatza Orokorrek gainbegiratu dituzten NBOaren justifikazioak eta egindako gastuak.

NBOaren 2014ko gastuak 154.697 eurokoak izan ziren; horietatik, ehuneko 86 langile-gastuak dira, eta gainerako ehuneko 14a, berriz, funtzionamendu gastuak. 2013arekin eta 2012arekin

alderatuta, ehuneko bat eta ehuneko 33 egin dute behera, hurrenez hurren. 2012ko gastuekiko jaitsiera hain nabarmen horren arrazoia izan zen NBOa EEBOIaren egoitzara aldatzea; hain zuzen ere, aldaketa horrek berarekin ekarri zuen alokairu-gastuak (76.730 euro) kentzea eta funtzionamendu gastuetarako kopuru askoz txikiagoa jartzea (8.829 euro), txosten honetako V.2 atalean azaldu bezala.

### III. HELBURUA

Parlamentuko eskaera kontuan hartuta, hauek dira lan honen helburuak:

- NBOaren gastuak 2003-2014 aldiaren izan duen bilakaera aztertzea.
- Aipatutako aldi horretako zenbait urtetan NBOak egindako gastuak aztertzea.
- NBOak aipatutako aldiaren egindako jarduketak eta haien eraginkortasuna aztertzea.

Lana Espainiako Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz gauzatu da; horien barruan, "Fiskalizazio edo auditoria finantzarioa betetzeari buruzko oinarriko printzipioak" izeneko ISSAI-ES 200 araua eta "Fiskalizazio operatiboaren oinarriko printzipioak" izeneko 300 araua aplikatu dira.

### IV. NORAINOKOA ETA MUGAK

Aipatutako helburuak lortzeko, honako informazio hau aztertu dugu: NBOak 2003-2014 aldiaren langileen arloan eta ondasun arrunt eta zerbitzuetan egindako aurrekontu-gastuen betetzea; aurreko gastuen lagin bat, 2011, 2012, 2013 eta 2014. urteetakoek osatua; NBOak 2003-2014 aldiaren garatutako jardueri buruz dagoen informazioa.

Nafarroako Gobernuaren kontabilitatea gaur egun kudeatzen duen aplikazio informatikoak (SAP izenekoa) ez du aukerarik ematen 2001a baino lehenagoko informazioa ateratzeko; gainera, Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ezin izan dizkigu eman 2003a baino lehenagoko langile-gastuak. Inguruabar horiek beraiekin ekarri dute txostenak denbora dela-eta duen norainokoa aipatutako aldira murriztea, nahiz eta parlamentu-eskarian jaso alderdi horiek NBOa sortu zenetik aztertu behar zirela. Gure ustez, ordea, txostenaren ondorioak ez ziren aldatuko aurreko gastuak ere sartuta.

Lana egin dugu NBOak emandako informazioa kontuan hartuta, zeren eta ez baitugu egokitzat jo ordezkariaren Bruselako egoitzara joatea.

Lan hau egitean eragin duten mugek honako alderdi hauekin daude lotuta:

- NBOaren jarduketaren azterketa: NBOak 2008ko eta 2009ko jardueren oroitidazki bat eta 2014ko urtarrilean hasi eta 2015eko ekainera arteko aldirako jarduketaren laburpen bat eskuratu dizkigu. Gainerako urteetarako, ez dago oroitidazkirik.

Gainera, emandako informazioek ez dute formatu bera, eta horrek zailtasunak ekarri dizkigu eskuratutako datuak alderatzeko.

- Jarduketaren eraginkortasuna: NBOa barne hartzen duen aurrekontu-programak ez du ez helburu kuantifikaturik, ez adierazlerik, jarduketaren eraginkortasuna eta efizientzia ebaluatzeko.

Halaber, NBOari esleitutako eginkizunetatik erator daitezkeen ondorioak neurtzen zailak dira, eta haien inpaktua ez da beti epe laburrekoa izan. Gainera, NBOak garatutako jardueri esker lortutako emaitzak Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuetan, toki entitateetan, enpresa pribatuetan eta abarretan nabarmenduko dira, ordezkariak aholkua eta informazioa eman badie.

Halaber, kontuan hartu beharra dago NBOaren eginkizunak zuzenean lotuta daudela ukiezin kudeaketarekin (harremanak ezartzea, Gobernuko langileei laguntza ematea, proiektuen finantzaketarako informazioa biltzea, lobbya eta abar).

Aurreko horrek guztiak nabarmen zailtzen du NBOaren jarduketan eraginkortasunari buruzko ondorio bat ateratzea.

- NBOaren gastuen zenbatespena: egiaztatu dugu azterketaren xede den aldirako NBOaren gastu-kontusail berariazkoak badaudela. Halaber, 2003an eta 2004ko zati batean, aurkitu dugu NBOaren bulegoaren alokairu-gastuak Kanpo Ekintzarako Zerbitzuaren kontusail batean kontabilizatu direla.

Ez dakigu NBOaren beste gasturik baden, beste kontusail batzuetan kontabilizatu direnak. Hori gorabehera, uste dugu ez liratekeela munta handiko gastuak izanen, eta ez lituzketela aldakuntza gure lanaren atal horri buruz lortutako ondorioak.

## V. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, egindako lanetik heldu diren ondorio eta gomendio nagusiak aurkeztuko ditugu:

### V.1. NAFARROAREN BRUSELAKO ORDEZKARITZAREN GASTUAREN BILAKAERA (2013-2014)

Hurrengo taulan, NBOaren gastuak 2003-2014 aldian izan duen bilakaera erakusten dugu:

Urtea	Aitortutako betebeharrak			
	Langile-gastuak	Funtzionamendu gastuak	Alokairu-gastuak	Gastua, guztira
2003	102.446	44.655	57.125	204.226
2004	105.485	39.943	57.147	202.575
2005	109.597	43.997	59.786	213.380
2006	112.475	37.053	55.154	204.682
2007	117.782	45.607	75.078	238.467
2008	123.785	47.013	65.194	235.992
2009	128.871	46.774	71.299	246.944
2010	127.511	55.646	68.852	252.009
2011	126.448	47.431	71.650	245.529
2012	121.077	32.208	76.730	230.015
2013	104.403	20.667	32.123	157.193
2014	133.594	21.103	-	154.697
<b>Guztira</b>	<b>1.413.474</b>	<b>482.097</b>	<b>690.138</b>	<b>2.585.709</b>

Ikusten den bezala, aztertutako aldian NBOaren gastuak 2,6 milioi euro egin dute, batez besteko 215.476 urteko gastuarekin. Langile-gastuak guztizko gastuaren ehuneko 55 dira; alokairu-gastuak ehuneko 27 dira, eta funtzionamendu gastuak gainerako ehuneko 18a egiten dute.

Nabarmenezkoa da guztizko gastuak 2013an eta 2014an behera egin duela aurreko urtetako gastuaren aldean, funtsean 2013ko jaitsiera nabarmenarengatik eta 2014an alokairu-gastua desagertzeagatik.

Azterketaren xede den aldiko funtzionamendu gastuen ehuneko 94 justifikatu beharreko funtzen sistemaren bidez arautu da; eta gainerako ehuneko sei kasuko zuzendaritza nagusiak zuzenean baimendutako gastuak dira.

Justifikatu beharreko funtsei dagokienez, NBOak jasandako gastuen laburpen bat igortzen dio aldirako Nafarroako Gobernuari, jatorrizko fakturarekin, banku-laburpenekin eta ordezkariaren arduradunak emandako ordainketa-baimenarekin. Ekonomian eskuduna den departamentuak fakturak gastuen laburpenarekin eta banku-laburpenekin alderatzen ditu.

Halaber, kontu-hartzaileak laginketak egiten ditu aldez aurreko fiskalizazioari lotuta ez dauden gastu txikiei buruz; horien artean, Kanpo Ekintzarako Zerbitzuak zuzenean baimendutako gastuak egon daitezke.

## V.2. NBOaren GASTUEN AZTERKETA

Egiaztatu dugu aztertutako laginean, NBOaren gastu guztiek osatzen duten horretan, 2011-2014 aldiko gastu guztiak justifikatuta eta oinarrituta daudela, eta egoki kontabilizatu eta izapidetu direla.

Egindako fiskalizaziotik hainbat alderdi nabarmendu nahi ditugu. Hona:

- NBOaren funtzionamendu gastuak, justifikatu beharreko funtsen sistemaren bidezkoak, honako kontzeptu hauen arabera sailka daitezke:

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	Guztira, 2011-2014	
					Kopurua	Guztizkoaren gaineko %
Kanonak eta tasak	1.789				1.789	1,6
Ezin inbentaria daitekeen bulego materiala eta material informatikoa	838	602			1.439	1,3
Prentsa, aldizkariak, liburuak eta bestelako argitalpenak	3.393	2.038	1.690		7.121	6,3
Elikagaiak	86	9		315	410	0,4
Bestelako hornidura bereziak	1.175		245		1.420	1,2
Telefono, posta, telegrama, telex eta telefax bidezko komunikazioak	3.422	1.938	994	1.446	7.800	6,9
Komunikazioak eta datuen transmisioa	4.274	4.336	66	549	9.225	8,1
Garraio-gastuak eta pleitak	574	328	208	139	1.249	1,1
Eraikin eta lokaletako aseguru-primak	109	116			225	0,2
Aseguru-primak Bestelako ibilgetua	231	236			467	0,4
Protokoloko eta ordezkari-talanteko eginkizunak	1.804	1.047	271	979	4.102	3,6
Bestelako gastu askotarikoak	7.716	7.725	2.700	2.725	20.866	18,3
Garbiketa eta txukuntasun zerbitzuak	3.956	3.391			7.347	6,5
Informatika zerbitzuak	787	61	997	61	1.904	1,7
Segurtasun-zerbitzuak	503	552			1.055	0,9
Catering zerbitzuak	6.298	1.121		350	7.769	6,8
Hirugarrenek eginiko bestelako lanak		264			264	0,2
Energia elektrikoa	4.070	1.121	-159		5.032	4,4
Garbiketarako materiala	780	187			966	0,8
Dietak, lokomozioa eta bidaia-gastuak	5.627	4.919	576	5.009	16.131	14,2
Espainiaren EBko Ordezkari-talanteko			8.400	8.829	17.229	15,1
<b>Guztira</b>	<b>47.431</b>	<b>29.991</b>	<b>15.987</b>	<b>20.401</b>	<b>113.810</b>	<b>100</b>

Askotariko gastuak dira guztizkoan kopuru handiena egiten dutenak, ehuneko 18 baitira. Lisboako Kontseiluko Europako Eskualdeen Ikerketa eta Berrikuntzarako Sareko kide izatearen kuenten ordainketari dagozkie.

EEBOIaren gastuak guztizkoaren ehuneko 15 egiten dute, eta 2013an eta 2014an kontzentratuta daude. 2013tik egoitza erabiltzeari buruzko hitzarmenak zehazten zuen NBOak EEBOIaren funtzionamendurako guztizko gastuak ordaintzen lagunduko zuela, ordezkari-talanteko daukan langile kopuruaren arabera (bi dira Nafarroaren kasuan); irizpide hori bera ezarrita dago bertan egoitza duten gainerako bost autonomia erkidegoetarako. Pertsona bakoitzeko eta urteko kalkulatu den gehieneko gastua 7.000 eurokoa dela zenbatetsita dago.

Erabilitako kontabilitate-prozedura urteko gastuaren zenbatespenaren hiruhileroko kontabilizazioan eta urte amaieran –EEBOIaren gastuaren datu errealekin– likidazioa egitean datza.

- 2012ko azaroan, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen NBOa EEBOIaren egoitzara eramatea, dirua aurrezteko neurri gisa. Izan ere, egoitza berri horrek 2013an eta 2014an 8.400 eta 8.829 euroko gastua ekarri zuen, hurrenez hurren; 2012ko alokairuak, ordea, 76.730 euroko gastua izan zuen, kontusail horren guztizko gastua osatzen zuten kontzeptu guztiak kontuan hartuta (alokairu-kontratua, kasuko tasak eta zergak, eraikinaren zamak eta abar).

Alabaina, txosten honen norainokoaren ondorengo egitate hau nabarmendu beharra daukagu: Nafarroako Gobernuaren eta NBOaren egoitzarako lokalaren jabearen arteko alokairu-kontratua 2002. urtean bertan bazegoen, eta hiru urteko iraupena zuen. Kontratu hori automatikoki berri-



tzen zen, zenbait hilabeteren aurrerapenarekin aldeetako batek kontratua amaitu nahi zuela iragartzen ez bazuen.

2012ko azaroan, alokairu kontratua 2015era arte luzatu zen, aldez aurretik aldeetako bakarrak horri ezezkua eman ez ziolako. 2012ko abenduan, Espainiako Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioak autonomia erkidegoei eskaini zien EEBOlaren egoitzara aldatzea, dirua aurrezteko eta baliagarri zeuden instalazioei probetxua ateratzeko. Nafarroako Gobernuak aurrean zeuzkan aukerak baloratu zituen, kontuan hartuta bere alokairu kontratua arautzen zuten baldintzak zein ziren; kanpoan aholkua eskatu ondoren, kontratua amaitzearen alde egin zuen, zeren eta ulertu baitzuen kontratuko artikulua bat aplikatuko zela, zeina baitzen lokaleko jabeari sei hilabeteren ordainketari zegokion kalte-ordaina ordaindu behar zitzaiola.

Hori zela eta, aipatutako gobernu-erabakiaren ondoren, 2012ko abenduan Nafarroako Gobernuak lankidetzarako protokolo orokor bat sinatu zuen Espainiako Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioarekin, Nafarroaren Bruselako ordezkariak EEBOlra aldatzeko.

Antzinako egoitzaren alokairu-kontratua 2012ko azaroan jada berriz abiatua zenez, lokaleko jabeak egoera hori salatu zuen, aurreko lerrokadetan aipatu dugun berritze automatikoaren klausulari aipamen eginez. Higiezin-enpresaren eta Nafarroako Gobernuaren artean zenbait adiskidetzegintza egin ondoren, enpresaren demanda baietsi egin zen, eta horrek ekarri zuen lokalaren jabea zen enpresari 193.507 euroko kopurua ordaindu behar izatea, 2015eko azarora arteko alokairu gastuei dagokion kopurua, kontratua ez betetzeagatik. Azkenean, 2015ean higiezin-enpresari ordaindu zaion zenbatekoa 196.935 eurokoa izan da.

Azken batean, Nafarroako Gobernuak NBOa EEBOlaren egoitzara eramanez lortu nahi zuen aurrezpena ez da lortu 2013-2015 aldian, zeren eta urte horietan ordaindu behar izan baitira bai antzinako egoitzaren alokairua, kontratua betetzearen inguruko aurreikuspen faltaren ondorioz, bai Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioaren egoitzan egoteagatik gastuak.

### V.3. NAFARROAREN BRUSELAKO ORDEZKARITZAREN JARDUEREN BURUZKO AZTERKETA.

NBOak 2008an, 2009an, 2014an eta 2015eko urtarriletik ekainera bitartean egindako jardueren buruzko informazioa eman digu.

Informazioa ez da formatu jakin baten arabera aurkezten, eta urte bakoitzean modu desberdinean neurtzen da. Horrek urteen arteko alderaketa zailtzen du. Daturi exhaustiboena 2009. urteari buruzkoa da. Nabarmendu beharra dago kasu guztietan jarduerari buruzko datuak ematen direla, baina ez direla datu horiek jarduera horren emaitzarekin lotzen; horrek eraginkortasunaren ebaluazioa zailtzen du.

Adibidez, ondoren NBOak 2009. urteari buruz emandako datu batzuk aurkeztuko ditugu.

	Nafarroako Gobernuari		Beste batzuei (udalak, enpresak eta abar)		Guztira	
	Proiektuei buruznerakoa		Proiektuei buruz	Gainerakoa	Proiektuei buruz	Gainerakoa
Igorritako txosten kopurua	74	631	49	57	123	688
Jasotako kontsulta kopurua	19	189	32	119	51	308
Bazkideak bilatzea	37	-	10	-	47	-
Europar Batasuneko Eskualdeen Batzordeari igorritako txosten kopurua						40
Europar Batasuneko Eskualdeen Batzordean babestutako zuzenketak						105
Nafarroako Europar Batasuneko Eskualdeen Batzordean aurkeztutako zuzenketak						6

Aurreko jarduerari dagokionez, aipatu beharra dago ez dugula egiaztatu benetan gauzatu ote zen; NBOak emandako informazioa da, besterik ez. Gainera, aipatu bezala, ez dugu informaziorik NBOak aurrera eraman duen jardueraren ondorioei buruz, eta jarduera hori, neurri handia batean informazio-hartzaileen menpe dago (Nafarroako Gobernuko departamentuak, udalak, enpresak eta abar).

Bai egiaztatu ahal izan ditugu NBOak garatutako jarduera batzuk; esate baterako, sareetako parte-hartzea (Vanguard Initiative, ERRIN, European Regions for Research and Innovation; CRPM, Europako Itsasaldeko Eskualde Periferikoen Konferentzia; eta ARFE, Europako Erregio Mugakideen Elkarte), bai eta Europako Ministroen Kontseiluetan, Europako Erregioen Batzordearen Open Days deitutakoetan eta abarrekoetan izandako parte-hartzea ere.

Azken batean, aurreko guztiari gehituz gero NBOak aurrera eramandako jardueren eraginkortasuna neurtzeko helburu kuantifikaturik eta adierazlerik ez dagoela, nahikoa zail gertatzen da haien eraginkortasunari buruzko ondorioak ateratzea, kontuan hartuta, gainera, ordezkartzaren helburuak eta eginkizunak ukiezinen kudeaketarekin lotuta daudela.

Atera ditugun ondorioak kontuan hartuz, bada, aholku hauek ematen ditugu:

- *NBOak aurrera eramaten dituen jardueren oroitidazki bat modu jarraituan eta ezarritako eredu baten arabera egitea.*
- *Helburu kuantifikatuak eta adierazleak ezartzea, NBOak aurrera eramandako jardueraren eraginkortasuna ebaluatzeko.*

Txosten hau auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

**Trabajos Catastrales SAren plantilla berregituratzeko baimena, Tracasa Instrumental SL sozietatean sartu behar diren langileen subrogazioaren bitartez.**

*FORU ARAUBIDEKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Foru Araubideko Batzordeak, 2016ko martxoaren 15ean egindako bileran, baimena eman du Trabajos Catastrales SAren plantilla berregituratzeko, Tracasa Instrumental SL sozietatean sartu behar diren langileen subrogazioaren bitartez.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hau argitara dadin agintzen dut.

Iruñean, 2016ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

